



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko apirilaren 3a

41. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Covid-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteez ekarritako behar bereziei erantzuteko (2. or.).
- Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Covid-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteez ekarritako behar bereziei erantzuteko (5. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen duena (7. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Covid-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteez ekarritako behar bereziei erantzuteko.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2020ko apirilaren 1ean hartutako Erabakiaren bidez, foru lege proiektu bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Covid-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteez ekarritako behar bereziei erantzuteko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Osoko Bilkuraren esku jartzea honako foru lege proiektu honen izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia: "Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Covid-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteez ekarritako behar bereziei erantzuteko" (10-20/LEY-00005).

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Covid-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteez ekarritako behar bereziei erantzuteko**

**ATARIKOA**

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiaren izaera eman zion COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdiari, gaitza nazioartean zabaltzeak herrialde guztietako osasun publikorako arriskua dakarrelako eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen duelako. Testuinguru horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko.

463/2020 Errege Dekretu horrek 4. artikuluan ezartzen duenez, alarma egoeraren ondorioetarako eskumena duen agintaritza Gobernua izanen da, bai eta, zein bere ardura eremuan, ministerio hauetako titularrak ere: Osasuna, Defentsa, Barne Arazoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Agenda Urbanoa. Hala eta guztiz ere, errege dekretu horren 6. artikuluekin bat, administrazio bakoitzak eskumenak ditu, indarreko legeriak bere zerbitzuen ohiko kudeaketarako emandakoak, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, betiere kasuan kasuko agintaritzaren zuzeneko aginduen esparruan.

Horrela, COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortu duen egoera bereziaren ondorioz, zeharo ohiz kanpoko baita, premiazko neurri bereziak hartu dira, osasun publikoko arrazoietan oinarrituta. Horregatik, martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez premiazko neurriak onetsi ziren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko; horien artean daude langileen arlokoak, aukera emateko, batetik, langileen berehalako

kontratazioak egiteko, eta, bestetik, ahalik eta profesional gehien sartzeko sisteman, nahitaezkoa den lanpostuetan langile falta balego zerbitzuak eman ditzaketanak. Eskubide sozialen arloan, giza baliabideei dagozkien zenbait neurri hartzen dira zentro eta zerbitzu soziosanitarioen funtzionamendu egokia bermatzeko. Halaber, egoera ahulean dauden haurren elikadurarako oinarrizko eskubidea bermatzeko neurriak hartzen dira, eta gizarte zerbitzuen eta ikastetxeen arteko koordinazioa ezartzen. Aldatzen dira enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek premia duten enpresei laguntzeko xedeaz eman ditzaketan abal edo antzeko bermeen eta maileguen gehieneko zenbatekoak, oso litekeena delako figura juridiko horien eskaera handitzea. Azkenik, tributuen arloko neurriak hartzen dira, zerga betebeharrak mugatu, eten edo gerortzeko, zergadunen gaineko inpaktu kaltegarriak aurrea hartzeko.

Premiazko behar bereziak egoteak ekarri zuen beste neurri multzo bat ezarri beharra, 2/2020 Foru Lege-dekretuan jaso dena; horien helburua da jarduera ekonomikoari eusteko behar den likidezia mantentzea, aldi baterako zailtasunen aurrean, Eskubide Sozietako Departamentuak eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak ematen dituzten dirulaguntzetarako baldintzak aldatzeari dagokionez, eta zerga arloan, jarduera bertan behera gelditzeak edo urritzeak ukitutako autonomoen eta enpresen likideziari laguntzeko xedez, zerga betebeharrak betetzea errazteko neurriak ezartzen dira. Etxebizitzaren arloan, neurrien helburu nagusia da erraztasunak ematea etxebizitza babestuen sustapenaren arloan eta etxebizitza babestuak birgaitzearen arloan abian dauden espedienteek beren bidea segi dezaten, jarduera ekonomikoaren

motorrak diren aldetik, eta, halaber, egoera ekonomiko ahulean dauden familiei laguntzea, etxebizitza libre edo babestu batean errentari daudenean.

Era berean, 100 milioi euro arteko funts bat eratzen da, beharrezkoa bada handitzen ahalko dena, COVID-19aren kudeaketaren ondorioz sortzen diren aparteko gastuak arintzen saiatzeko neurriak ezartzeko, batez ere sektore hauetan: osasuna, hezkuntza, politika sozialak, enplegua, familiak, enpresak, enpresa txiki eta ertainak, autonomoak, lana eta familia bateragarriak egiteko neurriak, babes soziala eta COVID-19ak eragindako bestelako gastuak. Zenbateko hori gaurkotzen joaten ahal da, behar berriak sortu ahala eta horien arabera. Funts hori aurrekontuko aldaketak tramitatuz aplikatuko da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007ko Foru Legeak agintzen duenarekin bat.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoan ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago edo kontsignatuta dagoena aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa, lehen kasuan, edo kreditugehigarri bat ematekoa, bigarrenean. Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua eta kreditugehigarria edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal direla, Parlamentuak zuzenketak direla-eta berriaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

**1. artikulua.** Kreditu-gehigarria ematea.

Kreditu-gehigarri bat ematen da, 28.427.728,25 eurokoa, 2020ko ekitaldirako, honela banatuta:

Proi	Organ.	Ekon.	Funtz.	Izena	ZENBATEKOA
051000	02100	2269	132102	COVID-19 Gastu arruntak	55.334,40
051000	02100	6054	132104	COVID-19 Ekipo teknikoa eta segurtasunekoa	1.530,00
054000	02800	2269	131102	COVID-19 Gastu arruntak	20.810,61
054000	02800	6054	134204	COVID-19 Ekipo teknikoa eta segurtasunekoa	15.413,33
054000	02800	6060	131102	COVID-19 Informazio prozesuetarako ekipoak	6.000,00
054001	02500	2269	131102	COVID-19 Gastu arruntak	9.856,51
054001	02500	6031	134102	COVID-19 Instalazioak	13.162,38
054001	02500	6054	134103	COVID-19 Ekipo teknikoa eta segurtasunekoa	10.659,85
054001	02500	6060	131102	COVID-19 Informazio prozesuetarako ekipoak	1.259,80
054001	02500	6094	131100	COVID-19 Aplikazio informatikoak	20.000,00
080002	08200	2600	232303	COVID-19 Harrera baliabideen kudeaketa	10.000,00
111000	11300	2271	923102	COVID-19 Garbiketa eta txukuntze zerbitzuak	477.250,76
540000	52000	2269	311103	COVID-19 Askotariko gastuak	5.000.000,00
543000	52200	6057	312805	COVID-19 Ekipamendu medikoa	12.000.000,00
543000	52200	6059	312804	COVID-19 Ekipamendu orokorra	4.000.000,00
545000	52400	6057	312802	COVID-19 Ekipamendu medikoa	950.000,00
545000	52400	6059	312803	COVID-19 Ekipamendu orokorra	50.000,00
546000	52500	6057	312802	COVID-19 Ekipamendu medikoa	950.000,00
546000	52500	6059	312802	COVID-19 Ekipamendu orokorra	50.000,00
547001	52300	6057	312802	COVID-19 Ekipamendu medikoa	1.000.000,00
900003	91600	4609	231504	COVID-19 Larrialdiko laguntzak	500.000,00
900003	91600	4609	231505	COVID-19 Etxegabeentzako harrera zerbitzua	100.000,00
920000	93000	2216	231002	COVID-19 Material klinikoa	651.743,12
920000	93000	2270	231002	COVID-19 Ikuztegiko zerbitzuak	77.176,01
920000	93000	2271	231002	COVID-19 Garbiketa eta desinfekzio zerbitzuak	149.878,21
920000	93000	2279	231002	COVID-19 Zerbitzuen errentamendua	472.410,68
920000	93000	2284	231002	COVID-19 Garbitzeko eta txukuntzeko produktuak	29.000,00
920000	93000	2285	231002	COVID-19 Jantziak eta oinetakoak	10.182,59
920000	93000	6020	231000	COVID-19 Obrak zentro berekietan	236.460,00
920000	93000	6059	231000	COVID-19 Altzariak eta ekipoak	282.800,00
950000	96000	4809	241304	COVID-19 Kalte-ordainak kontratuak eteteagatik	315.300,00
F10000	F1000	2279	231902	COVID-19 Itzulpenak	1.000,00
F10000	F1000	2262	231902	COVID-19 Publizitatea eta propaganda	1.500,00
F20001	F2000	2284	112102	COVID-19 Garbiketa eta txukuntze materiala	1.500,00
G30002	G3200	2061	921C02	COVID-19 Software korporatiboaren lizentziak eta mantentze-lanak	15.000,00
G30002	G3200	2273	921C06	COVID-19 Jarduera eta zerbitzu maila (Giza baliabideak, GE21, GPI beste batzuk)	30.000,00
G30003	G3300	2276	921C02	COVID-19 Laguntza ofimatikoa Nafarroako Gobernuarentzat eta departamentuetako proiektuen kudeaketa	30.000,00
G30003	G3300	6094	921C02	COVID-19 Garapen arkitekturaren bilakaera eta aplikazioen bilakaerari dagozkion mantentze-lanak	40.000,00
G30005	G3500	2061	921C02	COVID-19 Erabilera orokorreko eta azpiegituretako software lizentziak	25.000,00
G30005	G3500	2190	491102	COVID-19 NASERTICI egindako mandatua. Ahots- eta datu-sare korporatiboaren mantentze-lanak eta kudeaketa	141.000,00
G30005	G3500	2220	491303	COVID-19 Telekomunikazioetako zerbitzua	122.000,00
G30005	G3500	2273	921C07	COVID-19 2. mailako asistentzia eta lanak hirugarrenekin	335.000,00
G30005	G3500	2279	491102	COVID-19 Segurtasun kudeatuko zerbitzuak	39.000,00
G30005	G3500	6059	491102	COVID-19 Telekomunikazioetako ekipamendua eta terminalak	33.000,00
G30005	G3500	6060	921C02	COVID-19 Ekipamendu informatikoa eta azpiegitura teknologikoak	80.000,00
G30006	G3600	2276	311103	COVID-19 Software arkitektura Osasun Departamenturako	67.500,00

**2. artikulua.** Kreditu-gehigarriaren finantzaketa.

Kreditu-gehigarria finantzatzeko, 28.427.728,25 euro zehazki, "Gastu orokorretako diruzaintza gerakina" izeneko 113002-12100-8700-000002 partidaren aurrekustean diren diru-sarrerak handiagotzeko erabiliko dira.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Covid-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei ekarritako behar bereziei erantzuteko.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2020ko apirilaren 1ean hartutako Erabakiaren bidez, foru lege proiektu bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Covid-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei ekarritako behar bereziei erantzuteko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Osoko Bilkuraren esku jartzea honako foru lege proiektu honen izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia: "Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Covid-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei ekarritako behar bereziei erantzuteko" (10-20/LEY-00006).

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Covid-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei ekarritako behar bereziei erantzuteko**

### ATARIKOA

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiaren izaera eman zion COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdiari, gaitza nazioartean zabaltzeak herrialde guztietako osasun publikorako arriskua dakarrelako eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen duelako. Testuinguru horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko.

463/2020 Errege Dekretu horrek 4. artikuluan ezartzen duenez, alarma egoeraren ondorioetarako eskumena duen agintaritzak Gobernuaren izan da, bai eta, zein bere ardura eremuan, ministerio hauetako titularrak ere: Osasuna, Defentsa, Barne Arazoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Agenda Urbanoa. Hala eta guztiz ere, errege dekretu horren 6. artikuluekin bat, administrazio bakoitzak eskumenak ditu, indarreko legeriak bere zerbitzuen ohiko kudeaketarako emandakoak, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, betiere kasuan kasuko agintaritzaren zuzeneko aginduen esparruan.

Horrela, COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortu duen egoera bereziaren ondorioz, zeharo ohiz kanpokoa baita, premiazko neurri bereziak hartu dira, osasun publikoko arrazoiak oinarrituta. Horregatik, martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez premiazko neurriak onetsi

ziren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko; horien artean daude langileen arlokoak, aukera emateko, batetik, langileen berehalako kontratazioak egiteko, eta, bestetik, ahalik eta profesional gehien sartzeko sisteman, nahitaezkoa den lanpostuetan langile falta balego zerbitzuak eman ditzaketenak. Eskubide sozialen arloan, giza baliabideei dagozkien zenbait neurri hartzen dira zentro eta zerbitzu soziosanitarioen funtzionamendu egokia bermatzeko. Halaber, egoera ahulean dauden haurren elikadurarako oinarrizko eskubidea bermatzeko neurriak hartzen dira, eta gizarte zerbitzuen eta ikastetxeen arteko koordinazioa ezartzen. Aldatzen dira enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek premia duten enpresei laguntzeko xedeak eman ditzaketen abal edo antzeko bermeen eta maileguren gehieneko zenbatekoak, oso litekeena delako figura juridiko horien eskaera handitzea. Azkenik, tributuen arloko neurriak hartzen dira, zerga betebeharrak mugatu, eten edo geroratzeko, zergadunen gaineko inpaktu kaltegarriari aurrea hartzeko.

Premiazko behar bereziak egoteak ekarri zuen beste neurri multzo bat ezarri beharra, 2/2020 Foru Lege-dekretuan jaso dena; horien helburua da jarduera ekonomikoari eusteko behar den likidezia mantentzea, aldi baterako zailtasunen aurrean, Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak ematen dituzten dirulaguntzetarako baldintzak aldatzeari dagokionez, eta zerga arloan, jarduera bertan behera gelditzeak edo urritzeak ukitutako autonomoen eta enpresen likideziari laguntzeko xedez, zerga betebeharrak betetzea errazteko neurriak ezartzen dira. Etxebizitzaren arloan, neurrien helburu nagusia da erraztasunak ematea etxebizitza babestuen sustapenaren arloan eta etxebizitza babestuak birgaitzearen arloan abian dauden espedienteek beren bidea segi dezaten, jarduera ekonomikoaren motorrak diren aldetik, eta, halaber, egoera eko-

nomiko ahulean dauden familiei laguntzea, etxebizitza libre edo babestu batean errentari daudenean.

100 milioi euro arteko funts bat sortzen da, beharrezkoa bada handitzen ahalko dena, COVID-19aren kudeaketaren ondorioz sortzen diren aparteko gastuak arintzen saiatzeko neurriak ezartzeko, batez ere sektore hauetan: osasuna, hezkuntza, politika sozialak, enplegua, familiak, enpresak, enpresa txiki eta ertainak, autonomoak, lana eta familia bateragarriak egiteko neurriak, babes soziala eta COVID-19ak eragindako bestelako gastuak. Zenbateko hori gaurkotzen joaten ahal da, behar berriak sortu ahala eta horien arabera. Funts hori aurrekontuko aldaketak tramitatuz aplikatuko da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007ko Foru Legeak agintzen duenarekin bat.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoan ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago edo kontsignatuta dagoena aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa, lehen kasuan, edo kreditugehigarri bat ematekoa, bigarrenean. Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua eta kreditugehigarria edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal direla, Parlamentuak zuzenketak direla-eta berriaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

#### 1. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

Aparteko kreditu bat ematen da, 23.192.552 eurokoa, 2020ko ekitaldirako, honela banatuta:

Proi	Organ.	Ekon.	Funtz.	Izena	ZENBATEKOA
111000	11300	8401	931102	COVID-19 Betebehar finkatuak ez betetzeagatiko ordainketak	142.552,00
111002	11300	8500	923102	COVID-19 Sektore publikoko akzioak erostea	15.000.000,00
540000	52000	3509	311100	COVID-19 Finantza gastuak	50.000,00
810001	81100	4400	931102	COVID-19 Transferentzia arrunta SODENari Elkargirekiko eta Sonagarrekiko hitzarmenak finantzatzeko	3.000.000,00
900002	91100	4809	231503	COVID-19 Errenta Bermatua	5.000.000,00

**2. artikulua.** Aparteko kredituaren finantzaketa

Aparteko kreditua finantzatzeko, 23.192.552 euro zehazki, "Gastu orokorretako diruzaintza gerakina" izeneko 113002-12100-8700-000002 partidaren aurreikusten diren diru-sarrerara handiagokak erabiliko dira.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2020ko apirilaren 1ean hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari,

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Osoko Bilkuraren esku jartzea Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia (10-20/LEY-00007).

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proiektua, Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen duena****ATARIKOA**

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiaren izaera eman zion COVID-19ak eragindako osasun publiko larrialdiari, gaitza nazioartean zabaltzeak herrialde guztietako osasun publikorako arriskua dakarrelako eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen duelako. Testuinguru horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko.

463/2020 Errege Dekretu horrek 4. artikuluan ezartzen duenez, alarma egoeraren ondorioetarako eskumena duen agintaritzak Gobernuak izanen da, bai eta, zein bere ardura eremuan, ministerio hauetako titularrak ere: Osasuna, Defentsa, Barne Arazoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Agenda Urbanoa. Hala eta guztiz ere, errege dekretu horren 6. artikuluekin bat, administrazio bakoitzak eskumenak ditu, indarreko legeriak bere zerbitzuen ohiko kudeaketarako emandakoak, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, betiere kasuan kasuko agintaritzaren zuzeneko aginduen esparruan.

Nafarroako Gobernuak bi foru lege-dekretu onetsi ditu 2020ko martxoan, premiazko neurriak onesten dituztenak koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege-dekretuaren 19. artikulua honakoa ezartzen du:

Funts bat sortzen da, 100 milioi euro artekoa, beharrezkoa bada handitzen ahalko dena, beharren arabera aplikatu dadin, honako arlo hauetan

egiten diren gastuei aurre egiteko: osasuna, hezkuntza, politika sozialak, enpresak, ETEak, langile autonomoak, laneko eta familiako bizitzen bateragarritasuna, babes soziala eta COVID-19aren ondorioz eraginiko beste gastu batzuk. Horretarako, dagozkion aurrekontu-aldaketak tramitatuko dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean xedaturik dagoenari jarraikiz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen 38. artikulua ezartzen duenez, funts-mugimenduen xede izan daitezkeen partida bakarrak Aurrekontuei buruzko Foru Legean hala ezarritakoak dira.

Horrez gain, foru lege horren 43. artikulua ezartzen duenez, aurrekontu zuzkiduren in-tsuldaketak, aurrekontuei buruzko foru legean funts mugimenduak deitzen direnak, ez dira aurrekontu-aldaketatzat hartuko.

**1. artikulua.** Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen 5. artikulua aldatzea.

Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen 5. artikuluari bigarren paragrafoa gehitzen zaio. Hona testua:

“Horiez gain, zabalgarriak izanen dira, 2020ko ekitaldiari dagokionez, koronabirusaren aurkako borrokarako neurri bereziak finantzatzeko helbu-

ria duten edo ekitaldian horretarako sortu beharreko partida guztiak (Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan jasotako muga izan gabe); partida horien izena COVID-19... izanen da”.

**2. artikulua.** Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legeari 58. artikulua gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“58. artikulua. COVID-19 kredituen kudeaketa.

Funts mugimenduak egiten ahalko dira COVID-19ari dagozkion partiden artean, eta gastuaren kudeaketa hoberako beharrezkoak direnak sortzen ahalko dira.

Partidak zer departamenturi dagozkion, haren titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren”.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.